



MUSIKA

Makinak, mezua eta gordintasuna kantuariaren alde



LOBOTOMIAK REVOLTA PERMANENT BAGA-BIGA

IKER BARANDIARAN

Barakaldoko talde gazte eta aldi berean baterano honen sortzeak eta izateak oinarri handia dauka hip-hopean, izan ere, taldeko kideak 121 Krew, Norte Apache, Herri Oihua eta beste taldeetan ibilitakoak dira. Oso gazte hasi ziren kalean, eta ordutik ez diote inoiz utzi kontzientzia zabaldu eta borrokatzeari; are gehiago, beti estimulu eta sorkuntza bide desberdin asko berengantzeko prest egon dira eta daude.

2014an bestelako ukitu aberatsa eman nahi izan zioten taldearen emaitzari: hip-hopa eta elektronika ezkonduz *Genesis* (Gaua) diskoa argitaratu zuten Aitor Abioren laguntzarekin eta hor datza aldaketa nabarmenaren hazia: Pilt

eta Matxura taldeetan ibilitako eta Gaua estudioko arduradun Abio zuzeneko piztiari esker irauli zuten rap eta hip-hopean hain ohikoa den ahotsaren hegemonia, eta giro dantzagarri, batez ere gordin eta pisutsuei rapa batu zioten tarteka. 2016an grabatu zuten *Kimera* (Gaua) izeneko bigarren diskoa antzeko ildoan; eta 2018an *Ultravioleta* (Gaua) lan luzeak beste jauzi bat ekarri zuen, diskoak batzen dituen zortzi kantak Espainiako Estatuko zortzi soinu ekoizle desberdinekin grabatu baitzituzten. Eta diskoari dokumental bat gehitu zioten gainera.

Orain *Lobotomiak* lana dakarte beso azpian. Zulatzen elektronika lasai baina misteriotsua da. *Lobotomia* Steve Albiniren Big

Blacken urgutzia, rapa eta erdi tempoak batzen dituen pieza kañeroa. *R*-k dantza egiteko elektro-rocka eskaintzen digu. *Aukerak* techno ilun eta musika industrialaren arteko lasterketa, garatuz doana. *Mundo roto* –guztiak bezala euskaraz– elektronika ilun eta indartsuari rapeatua. *Gorrotoka* makinaren eta eskola zaharreko hip-hoparen arteko topagunea. *Garrasi* Maria Redondok borobildutako elektro-techno-pop pieza ederra. *Moralaren salbatzaile* eskola zaharreko hip-hopari keinua. *Mailua*-k erakutsi digu raggamuffina bortitza izan daitekeela, baita zikina ere. *Adikzio berri bat* da oinarri metaleroena duen hip-hop kanta itsaskorra. Eta, azkenik, 3,1416 gurrpilaren ardatz eta espirala. ●